

# Hernanik Kronika

TOKIKOM 2010eko urtarrilaren 26a, asteartea ::: 3.173 zka. ::: www.kronika.net



## ❖ IPUIN KONTAKETA Umeentzeko kontaketa gaur

Ipuin kontaketa izango da gaur umeentzeko Udal Liburutegian. Kontalari lanetan Lur Korta arituko da, eta bi txanda izango dira. Aurrenekoa arratsaldeko 17:30etan, 3-4 urte bitarteko umei zuzendua; eta bigarrena 18:00etan, 5-7 urte bitartekoei zuzendua. ||

## ❖ SAN JOAN KONPARTSA Urteko batzarra ostegunean izango da Biterin

San Joan Konpartsak urteroko bilera egingo du etzi, hau da, urtarrilaren 28an. Biteri kultur etxean izango da, arratsaldeko 19:00etan. Jendeari bertara azaltzeko deia egin dio elkarteak. ||

## ❖ 'HAIKA MUTIL' DVD Salgai AEKn eta hainbat tabernetan

Hernaniko eta Astigarra-gako AEKk elkarlanean, Mikel Laboaren omenezko DVDa jarri dute salgai. Bertan biltzen da iaz Hernaniko hainbat musikaririk Laboaren omenez emandako kontzertua. DVDa salgai dago 10 euroan, Hernaniko eta Astigarra-gako AEKn, eta Aralar, Oindi, Tripontzi eta Zumitza tabernetan. ||

## ❖ HERRI BATZARRA Ostegunean izango da Biterin

Hernaniko Ezker Abertzaleak Herri Batzarra egingo du ostegunean. Biteri kultur etxean izango da, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Bertan, ondorioak aterako dira Fase politiko eta Ezker Abertzalearen Estrategiaren argipena izeneko txostenaren inguruan eztabaidatu denari buruz. ||

## PEIO LOZANO - EHUko irakaslea eta ingurugiro antolamenduko aditua

# «Gipuzkoan zabor asko ari gara bereizten, eta beraz, erraustegia justifikatzea ez daukate erraza»

Erraustegiari buruzko hitzaldia emango du gaur Peio Lozano EHUko irakasleak, arratsaldeko 20:00etan, Biteri kultur etxean. Kronikak erraustegiari buruz galdetu dio Lozanori.

### Azalduko al zeniguke erraustegi batek nola funtzionatzen duen?

Erraustegi batek behar duena da, alde batetik zaborra, baina batez ere, erregaia. Gasa, edo fuela.

Garai batean, dena erregai bidez egiten zen, baina hori izugarri garestia zen eta kutsakorra. Orduan egiten dena da, labe horretan aztertu zer material bota diren, zabor horrek zer daukan, eta kalkulatu zenbat erregai beharko den erretzeko.

### Baina zuek ez zaudete sistema horrekin ados.

Ez. Arazo haundiak sortzen dituelako.

Birziklatzen dena alde batera uzten badugu, ikusi dezakegu, materia organikoa dela zaborraren parterik haundiena. %50 edo gehiago da materia organikoa. Materia organiko horrek batez ere dauka ura (%70). Ura erretzea da, kontraesan bat. Urak ez du indarrik, ura erretzeko zer behar duzu? Erregaia. Eta hori lehen esan dugun moduan, garestia eta kutsakorra da.

Bestetik. Zaborraren zati bat plastikoa da. Plastikoa gehienek kloroa daramate, eta hori erretzean sortzen dira hain famatu egin diren dioxinak.

Gainera, erraustegi batek behar ditu zabortege mota ezberdinak. Esaten dute: «Edo zabortegea edo erraustegia!». Eta ez da horrela; zabortege batek behar ditu 3 zabortege mota: bat, oso kaltegarriak diren zepak metatzeko (eskoriak, masa moduko bat);



Peio Lozano irakaslea, Urnietako plazan.

bi, errauntsentzako; hiru, filtroentzako. Hor metatzen dira: dioxinak, metal astunak, furanoak eta abar.

Adibide batzuk jarri dizkizut, baina erraustegia kontraesanaz gainezka dago.

### Eta osasunari kalte handia gingo diola esaten duzue.

Bai. Zenbat eta gertuago izan, orduan eta kalte haundiagoa. Azterketek diote, minbizi kasu gehiago ematen direla,

Azterketek dienez,  
erraustegitik 5 km-ko  
bueltan, minbizi kasuak  
hiru aldiz gehiago  
izan litezke

proporzioan: biriketako minbiziak, haurren zenbait gaitz, alergiak, asma, begiekin lotutako gaitzak

Efektuak badituela frogatua dago argi eta garbi. OMS berak ere, bere garaian, esaten zuen, efektuak izugarriak izaten zirela.

Azterketa batek dionez, erraustegitik 5 km-ko bueltan, minbizi kasuak hiru aldiz gehiago izan litezke.

Osasun kalteei buruz hitz egiten duen txosten handi bat egin genuen bere garaian.

### Baina erraustegiak seguritate sistemak ere baditu; filtroak eta abar.

Inguru xamarrean, errauskailuak jarri dira Katalunian eta Madrilan. Valdemiñomezeko kasua ezaguna da. Zer pasa zen? Legeak agintzen du den-

bora baten buruan aldatu behar direla filtroak eta abar. Horrek izugarriko gastua suposatzen du ordea, eta ez dituzte aldatzen. Valdemiñomezen, ingurugiro fiskala joan zen, eta ikusi zuen, 1.000 aldiz gehiago isurtzen ari zirela, baimendutakoa baino. Zeinek kontrolatuko du hori?

Eta filtroak ondo egongo balira ere, beti kantitate bat isurtzen dute, legez jarritakoa baino gehiago. Gainera, gaur egungo teknologia ez dago prestatua konpuesto kimiko batzuk guztiz kontrolatzeko. Ezagutzen ditugunak %40 bakarrik dira, alegia, ez da ezagutzen isurtzen ari garen horren %60.

### Eta zergatik defendatzen dute batzuk?

Bartzelonako probintzian orain dela 6 hilabete hiru erraustegi zeuden, eta 2 itxi dituzte. Guri iritsi zaigu, garai bateko moda, orain dela 20 urtekoa. Eta indarrean hori jarri nahi dugu.

Erraustegi bat jartzeak, Gipuzkoan interes ezberdinak izan ditzake... baina batez ere, ekonomikoak: horrelako azpiegitura batek mugitzen duen dirutza izugarria da. Azpiegitura erraldoi hauekin pasatzen dena da, oso errentagarriak direla. Denon artean ordaindu behar ditugunez...

Interesak ikusten dira argi eta garbi. Baina gure esku dago horrekin bukatzea. Gipuzkoan ikusten ari diren bilketa selektibo mailak ikusita, ez daukate batere erraza erraustegia justifikatzea. ||

**Brintza**

Lan-Aholkularitza -  
Fiskala -  
Aseguruak Inbertsioak -  
Zerbitzu Juridikoak -

www.brintza.com

Urbietza 15 - Hernani - Tel.: 943 331 267 - Faxa: 943 330 892

Hernaniko kronikako  
laguntzaile:

**ORAUÑE  
PROMOCIONES**

**PROMOCIONES**

**Mendi Lore**  
loradenda, jardineritza

**ZURE LORADENDA HERNANIN**

Larramendi 5, HERNANI. Tel: 943 55 23 26.

**TELEFONOAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalarri anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103  
● **FARMAZIAK** ● Egunez: **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● Gauez: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

**EGURALDIA**  
**GAUR** Hotza izango da eguneko protagonista. Goizaldean 2-3°C-ren bueltan ibiliko da termometroa, eta egunez, gehienez, 8°C-ra igoko da. Behe lainoak izango dira.  
**BIHAR** Hotz handia egingo du eta Termometroa 0°C-ra hurbilduko da. Han-hemenka euri txikia egingo du.

## Alokairuzko etxebizitzak nola gestionatu zehazteko, herritarren iritzia eta proposamenak jasoko ditu Udalak

Udala alokairuzko etxebizitza parke publikoa osatzera doa, eta herritarren ekarpenak kontuan izango ditu, araudia osatzerakoan.

Bilera bihar izango da, 19:30etan, Biterin.

HERNANIKO Udala alokairuzko etxebizitza parke publikoa egitera doa. Azken urteetan, osatzeko ahaleginetan dihardu, eta helburua da etxe hauek Udalaren esku izatea.

Parke publikoa nola gestionatu behar den zehazteko araudia onartu behar du Udalak. Araudiaren bitartez, jasoko dira besteak beste, etxeak banatzeko irizpideak,

zein baldintza ekonomikotan alokatuko diren eta zenbat denboraz.

Ondorioz, Udalak jakinarazi du, gaiaren garrantzia kontuan izanda, aurreneko urratsa herritarrekin eman nahi dutela. Hernaniarren iritzia eta proposamenak jasotzeko bilera egingo dute, eta bihar izango da, arratsaldeko 19:30etan hasita, Biteri kultur etxean.

**Etxebizitzak izateko arazoari konponbidea**

Parke publikoarekin, Udalak nahi du etxebizitzak izateko arazoari konponbidea bilatu: «neurritzko preziodun alokairuzko etxebizitzak sustatzekoaren aldekoak gara».

Egun hiru etxe ditu Udalak, eta helburu du 2011garren urterako beste 11 izatea. Horrela, epe motzera, 14 etxeko parke publikoa izango du. ||

## Hernaniko batelek estropada txukuna egin zuten Orion

Hernaniko bost batel aritu ziren lehian, maila ezberdinetan.

ESTROPADA jokatu zen asteburuan Orion, eta bertan izan ziren Hernaniko bost batel.

Infantilen taldeak aurreneko estropada izan zuen, eta patrioaren akats baten ondorioz, kanporatuak izan ziren. Kadete mailan bi batel atera ziren eta sailkapeneren erdialdean geratu ziren. Seniorrei dagokionez, batel bat atera zuten, eta hiru bate-len arteko lehian bigarren egin zuten. Azkenik, neskek ere estropada txukuna egin zuten, eta sailakepenean, aldea murriztu dute. ||



Seniorrek euripean jokatu zuten estropada.

### Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

### Gune publikoak eta zakurrak: arazo konponezina?

Zenbait hernaniarren urteak eman ditugu gure Udalean buru izan diren kolore guztietako agintariei hauxe eskatuz: konpondu dezatela zakurren arazoa. Egia da badirela zakur-nagusi asko bere zakurra ondo erakutsia dutenak, eta, saiatzen direnak bere zakurrak inor molestatu ez dezan; eta, txukun-txukun, kaka-mokordoa biltzen dutenak, kale erdian (nazkagarria!) utzi gabe. Baina, egia da era berean,

badirela beste asko bere zakurrak "paso" egiten dutenak; eta nagusi horietan dira arazoa sortzen dutenak: denoi eragiten digun arazoa, hain zuzen ere.

Egia ere bada, orain arteko kolore guztietako udal korporazio guztiek bere ahalegintxoak egin dituztela; baina, azkenean, denek ere etsi egin dute; eta, oraindik ere, arazoak hor dirau, bere hartan, konpondu gabe.

Koxka elkarte osatzen dugun pertsonontzat, arazoa areagotu egiten da, baldin eta kalean zehar ibili behar

duena itsua bada, edo gurgilkarrotxan badihoa: ezin dute etxera itzuli, bere zapatazolak, edo gurgilak, zikindu gabe: ezin ihes egin kaka-mokordoari.

Horregatik berregatik, Koxka elkartekook eskatu egiten diogu Udal honi, benetako eragina izango duten neurriak hartu ditzan, nagusi axolagabeen zakurrek sortzen duten arazoa konpontzeko.

**Goio Irazusta, elkartekideak idatzia; eta, Koxka asanbladak onartua, aho batez.**

### Atez ateko zalantzak argitzen

Paper garrantzitsuak txikitzeo aukera egongo da?

Bai. Papera birrintzeko makina publiko bat jarriko da.

Bidali zure galdera helbide honetara: [info@hernaniatezate.net](mailto:info@hernaniatezate.net)  
Galde-erantzun guztiak webgunean: [www.hernaniatezate.net](http://www.hernaniatezate.net)



### IRAGARKI MERKEAK

**Pianoa salgai.** Yamaha U1F modeloa, bigarren eskukoa. Ongi zaindua. 2.500 euro.

Deitu: 629 763 041.

**Hernanin (Tilos-etan) Duplex-a salgai** estrenatzeko (eraikuntza berria). 130m<sup>2</sup>, 3 logela, 2 komun, sukaldia (osagai guztiek) eta igogailua. 442.000€.

Deitu: 656 316 031.

**Garaje itxia alokatzen da** herri erdialdean. Deitu: 943 55 04 71 / 615 009 926.

**ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna.** Deitu: 616 886 660.

**Yolanda estetika zentrua.** Fotodepilazio berria, **hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua** 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Atzieta 2, behea.** Tel. 943 55 32 78.

**Argia zentroa.** Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2).** 943 55 76 76

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

## Hernaniko Udala

**DEKRETUA.** - Hernanin bi mila eta hamarrek urtarrilaren zortzian.

Tokiko Gobernu Batzarrek 2008ko abuztuaren 17an hartutako erabaki bidez Ereñotzu eta Fagollaga arteko oinezkoentzako bidea egokitzeko Proiektua onartu zen. Proiektu hori Igor Erbiti Saizar mendi ingeniariak eta Xavier Erbiti Saizar mendi ingeniari teknikoak prestatu zuten (LUR GEROA SL).

Alkatetzak 2009ko irailaren 24an emandako dekretu bidez hastapenez onartu zen egitasmo horretan jasota datorren "Ondasun eta Eskubideen Zerrenda", proiektua burutzeko beharrezkoa, eta erabaki zen, halaber, zerrenda hori hamabost egunez jendaurrean ikusgai jartzea.

Epe horretan nahitazeko jakinarazpenak eta argitalpenak eginda, ez da alegazio idatzirik aurkeztu.

Horiek horrela, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko Legearen 21. artikularen 1. ataleko j eta s letrek eta 178. artikularen 2. atalak ematen dizkidaten ahalmenen arabera, hau

**ERABAKI DUT:**

1.- Ereñotzu eta Fagollaga arteko oinezkoentzako bidea egokitzeko Proiektuan jasota datorren ondasun eta eskubideen zerrenda behin betiko onartzea (ebazpen honen I. Eranskinean dator)

2.- Eragindako ondasun eta eskubideak berehala okupatzeko beharra deklaratzeko, eta aipatutako desjabetze espedientearen abiaraztat ematea.

3.- Okupazio aurreko akten deialdia egitea.

4.- Balioespena zehazteko espediente indibidualizatua aplikatzea.

5.- Erabaki hau argitaratzea, jabetza nahitaz kentzeari buruzko Legearen 21. artikulua xedatzen duena betetze aldera.

**I ERANSKINA**

**21 zenb. Finka :**

*Titularra:* Mertxe Etxeberria Aramburu eta beste bat.

*Helbidea:* Larramendi, 9-4. esk. - 20120 Hernani

*Katastroko erreferentziak eta errezibo zenbakiak:* landa-lurra, 5 poligonoa, 003 lursaila

*Hirigintza sailkapena:* lurzoruz ez-hiritargarria.

*Eragindako azalera guztira:* 133 m<sup>2</sup>

*Mugak:* iparraldean eta hegoaldean, jatorrizko finkaren gainerako zatia; ekialdean, Garmendia anai-arrebak eta mendebaldean, Juan Goicoechea.

*Kargak:* libre

**Marian Beitialarrangoitia Lizarralde alkate andreak agindu eta sinatzen du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.-**